



1978 - III - 31

Donostian, Gipuzkoako Diputazio jauregian, 1978ko Martxoaren 31an, arratsaldeko laurretan, bildu dira: L. Villasante buru dela, X. Diharce, E. Erkiaga, J. Haritschelhar, A. Irigoyen, E. Knörr, P. Lafitte, J. San Martin, J. M. Satrustegi eta A. Zavala euskaltzain jaunak; I. Berriatua, J. A. Etxebarria, J. Fernandez Setien, X. Garmendia Etxeberria, J. Garmendia Larrañaga, J. Intxausti, J. M. Iriondo, J. M. Lekuona, J. A. Letamendia, J. L. Lizundia, L. M. Mujika, J. A. Retolaza, P. Uribarren, P. Xarritton eta J. J. Zearreta euskaltzain laguntzaile jaunak J. San Martin idazkari dela.

J. L. Davant, J. Hiriart-Urruty, E. Larre eta P. Larzabal jaunak ezin etorria adiarazi dute.

Ohi den otoitzarekin hasi da batzarrea.

Otsaileko batzar agiria onartzen da.

#### a) HARREMANAK:

E. Erkiaga diruzainak 1977. urteko diru kontuen berri ematen du. Zertxeladarik aipagarrienak azaltzen ditu eta baita Bilbo eta Donostiako kutxen eta Bankuetako egoera. Kontuen laburpena hau da; zegoena: 888.597,98 pta.; gehitua: 11.551.554,09; urritua: 9.585.273,23; dagoe-na: 2.854.878,84 pta.

Liburuzainak hartu diren liburuen berri eman du eta emaile diren J. Zaitegi eta L. M. Mujika Euskaltzaindikoez gainera K. Rotaetxe, J. M. Mujika, J. A. Goiriena, C. Urdangarin eta Lea-Artibai=Kresala emaileei eskerrak ematea erabaki da.

J. San Martin idazkaria, Euskalerriko Kontseilu Nagusiaren Kultur Kontseilaritzan Zientzia eta Kultur Elkartearen zuzendari izendatua izan dela aditzera ematen du euskaltzainburuak eta zorionak ematen zaizkio. Eta San Martinek bere aldetik batzordea izendatzea eskatzen du euskalaren alderako plangintza bat egiteko. Zenbait elkarrizketa izanda eritziak emanez, elebitasunari buruz. Hasteko, batzorde horretarako, L. M. Mujika, Txillardegi eta X. Kintana proposatzen ditu, ateak irekirik gelditurik beste norbaitek bere burua eskaini nahi baldin badu, eta hurrengo batzarrer batetan erabak finkatzeko.

Euskalerriko Kontseilu Nagusiak itzultzaile eskaria egin zion Euskaltzaindiko Zuzendaritzari eta Martin Ugalde buru dela, Xalbador Garmendia eta Ibon Sarasola izendatu dira.

## b) GOIZEKO BILKUREN BERRI:

Idazkariak ematen du bilkura hauén berri: Euskaltzain osoen bilera-  
 ran ekonomi kontseilu laguntzailearen asmoez, Euskaltzaindiaren aldeko  
 kanpaina: Etxe berria eta bestelako premia batzuren alde: Biblioteka,  
 Iker lanak, Hiztegiak, Argitalpenak, eta hain beharrezko ditugun zerbitzu  
 eta ekipoak. Kanpaina onartzen da. Batzarre berean kontseilu horren  
 asmo eta Euskaltzaindiaren plangintza aurrera eramateko eta gerra  
 aurreko ohitura bat berbirtuz, urte honen amaierararte L. Mitxelena, Iker  
 Saileko buru, eta J. San Martin, Jagon Saileko buru, izendatzen dira.

Ondoren Matematika hiztegiaren batzordearekin izan duten bilera-  
 ren berri ere eman du. Hiztegi honen lehen parte gomendio bidez onar-  
 tzen da. J. M. Zumalabek, batzordeko K. Santamaria idazkariaren ezin  
 etorria adieraziz, zein plangintzaz baliatu diren azaldu du txosten bate-  
 tan.

Bergarako Biltzarreko Estadistika eta Soziologia batzordearen pro-  
 posamena, materialen bilketa eta azterketa Siadeco-k egin dezan, aintzin-  
 kontua begiratzen da. Datuen bankurako balioko digunez onartzen da.

Herri Izendegi batzordearen J. L. Lizundia idazkariak, Mitxelena  
 jauna buru delarik bildu den batzorde honen bilkuren berri ematen du.  
 Gasteizen egindako bilera aztertu eta onartu ziren Araba, Bizkaia eta  
 Gipuzkoako Udal izenen oharra. Gaur goizekoan, Iparraldeko euskaltzai-  
 nekin batera, Nafarroa Behereko, Zuberoako eta Lapurdikoek aztertu eta  
 onartu dira. Orain Nafarroakoen oharra bakarrik gelditzen dira ikuste-  
 ko.

J. J. Zearretak, Irakaslego batzordearen idazkari bezala goizean izan  
 duten bilkuraren kontu eman du, ukitu dituzten puntuak hauk izanik:  
 Hego Euskal Herriko lau ikastolen federakundeek eskaturik, eskolaurrean  
 lanean ari diren irakasle eta andereiñontzat Euskaltzaindiak Bazko  
 Astez eratu dituen azterketan ondorioak aztertu dira. 400 bat irakasle  
 aurkeztu da eta erabiltzen duten euskara, batez ere ahozkoa, oso aberatsa  
 da. Bestalde, azken azterketetan irakaslegaien kopurua gehituz doala iku-  
 sirik, Irakaslego Batzordea ugaritu beharra ikusten da. Hau dela eta Ba-  
 tzordea jaun hauek osatuko dute: E. Knörr, A. Irigoyen, X. Kintana, J. A.  
 Letamendia, X. Mendiguren, P. Urizarren, I. Laspiur, Txillardegia, J. Atxa,  
 P. Zabaleta, P. Xarriton euskaltzain eta laguntzaile, eta J. L. Goikoetxea,  
 J. M. Mujika eta A. Ozamiz Unibertsitateko irakasleek. Batzordeko idaz-  
 karia J. J. Zearreta izango da. Hurrengo etsamin egutegia honela erabaki  
 da: Apirilak 8, Donapaleun; Apirilak 22-29; Uztailak 22-29 eta urriak 21-  
 28.

## d) EUSKAL KLASIKOEN ARGITALPENAK:

A. Zavala jaunaren txostena. Lan hau nola eraman, plangintza oro-  
 kor bat agertzen du, bai kultur literaturaz eta bai herri literaturaz.

Zenbait asmo eztabaidatu dira, eta azkenik A. Zavala buru delarik  
 klasikoan lanak argitaratzeko batzorde bat osatzea erabaki da, txosten  
 honen asmoa oso interesgarritzat jo baita.